

Euskal irrati eta telebistetako kazetarien soslai soziologikoa

Rosa Martín Sabarís EHuko irakaslea eta **Mila Amurrio Velez** EHuko irakaslea eta UUEkidea

Artikulu honetan ikus-entzunezko euskal kazetarien soslai eta lanbidearekiko jarrerari buruzko ikerketa baten zenbait emaitzen berri ematen da. Ikerketa hori EHUK diruz lagundua izan zen. Igorleen ikerketa-ildora hurbilketa teoriko laburra ere eskaini da, irakurlea emaitza horien garrantziaz jabe dadin. Datu horiek zerikusia daukate ikus-entzunezko kazetaritzako profesionalen hainbat ezaugarriekin, hala nola, ezaugarri soziodemografikoekin, motibazioekin, asmoekin eta joera ideologikoekin. Ikus-entzunezko profesionalekin burututako ikerketa honek utzi duen soslai soziologikoak lagun diezaguke kazetaritza-jardunaz ematen duten iritzia hobeto ulertzen.

This article presents some of the results of a research project, funded by the University of the Basque Country, into the profile and professional attitudes of the Basque journalists who work in audiovisual media. But first, in order to help the reader understand these results, a brief theoretical review is provided of the research line in professionals of the media. With respect to the results, we present those that refer to the social and demographic characteristics, the motivations, expectations and ideological orientations of the professionals of audiovisual journalism in our milieu. The sociological profile obtained from the research can help in achieving a better understanding of the vision of their profession that they offer us.

Atarikoa

Masa Komunikazio Ikerkuntzan gehien landu diren arloak: hedabideak, edukiak, audientziak eta efektuak izan dira. Igorleen arloa, ordea, ahantzia izan da denbora luzez. Gure ingurune akademikora etorrira errealitatea hori are nabarmenagoa da, azkenengo bi hamarkadetan burututako ikerketak gabezi hori betetzera etorri badira ere. Ikerketa-lerro horretan burutu dugun lanaren zenbait emaitza artikulu honen hizpide izango dira, baina emaitza horiek ikusi aurretik azaldu nahi izan dugu zergatik komunikatzaileen inguruko lanak, batetik, berantiarra izan diren; eta, bestetik, zergatik interes handikoak diren.

1. Zergatik igorleak?

Esan bezala Masa Komunikazio Ikerkuntzan komunikatzaileen arloak ez du beste batzuek duten tradizio luzea. Ikerketa-lerro berantiarra izatearen zioetako batek zerikusia dauka, hain zuzen ere, kazetari edo komunikatzaile hitzaren definizio berarekin, zailtasunez beteriko definizioa dugu hori, aurki ikusiko dugunez.

Gaur egun, komunikatzaile profesionalen inguruko ikerketek, batik bat, honako ikerketa-eremuak lantzen dituzte:

- Profil soziologikoa, alegia, ezaugarri soziodemografikoak, motibazioak, asmoak eta joera ideologikoak.
- Lanbidea eta horren rolen definizioa(k): ezaugarriak, lanbide-norabideak, deontologia eta audientziarekiko erlazioak.
- Lanbide-prestakuntza eta sozializazioa.
- Kazetarien erlazioak komunikabideen erakundeekin.

Azken urteotan, kazetari buruzko ikerketak teknologia berriek komunikazio-igorle berrien lanbide-profiletan duten eragina ere ikertzen ari dira. Ustezko eragin horrek nor den kazetari eta kazetari batek zer egin behar duen galderen inguruko definizio klasikoak kolokan jartzen ditu. Hala ere, gure inguru akademikoan oraindik ez da gauzatu igorleei buruzko ikerketen garapen hori. Atzerapen horren zio batzuk, Ortégaren¹ esanetan, honakoak dira:

- Kazetaritzaren eboluzio historikoan une askotan Estatuaren kontrolpean egon izana. Horrela, soilik demokratizazioari ekin zitzaiola, hedabideak enpresa ekonomikoki boteretsu bihurtu eta profesionalak berezko interesak eta funtzionatzeko arauak dituen talde gisa eratu ziren. Une horretan kazetariak ikerketa-objektu gisa agertu ziren.
- Kazetariak erakutsitako interes urria beraiei buruzko ikerketarekiko, batik bat lanbidetik kanpo edozein erakundek burutua bada. Kazetari bat zer den, zeintzuk diren bere betebeharrak eta erantzukizunak eta abarri buruz, definiziorik eza da nagusi.

1. Ortega, F. eta Humanes, M^o.L. (2000): *Algo más que periodistas. Sociología de una profesión*, Ariel Sociología, Bartzelona, 224. or.

Kazetariei buruzko ikerketa enpiriko garrantzitsuenak azkenengo bi hamarkadetan burutu dira². Epe horretan, joera argi bat sumatzen da: kazetaritza lanbide gisa eraikitzen doala³. Kazetaritzak ogibide bihurtzeko segitu beharreko pausoak eman ditu, batik bat, kazetari-lanean aritu nahi duenarentzat berezitua den goimailako prestakuntza eskatzearena. Baina,aldi berean, kazetarien jarduna lanbide baten muga hertsia modu zabal batez gainditzen dituen jardun konplexu bihurtzen da. Kazetaritzaren jardunak funtzio nagusitzat du gizarteari berriak igortzea, baina, sarritan jarduna bera albiste bihurtzen da.

Gaur egungo munduan hedabideei egozten zaien eraginak hedabide horietan lan egiten dutenei botere sinbolikoa ematen die baita erakargarritasun berezia ere, azken horrek azalduz kazetariak aztergai bihurtu izana. Ikus ditzagun, bada, kazetariei eransten zaien botere sinboliko horri buruzko zenbait ideia. Jakina da hedabideek aire sinbolikora jaurtikitzen dituzten mezuak egitura ekonomiko, politiko, sinboliko, kognitibo eta abarretan sortzen eta txertatzen direla. Hedabideen mezuak egitura horietan sortuak dira eta mezuek egitura horien birsorkuntzan laguntzen dute. Hortaz, hedabideen bitartez mezuak produzitzen eta banatzen dituztenek beraien ekonomia-, politika-, gizarte- eta genero-kokapenetik ere zuzentzen dute produkzio eta banaketa hori. Horrela, mendekotasunezko kokapenak dituztenek, mendekotasunezko erlazioak birsortzeko joera izango dute, alegia, erlazioak *naturalizatzer*a joko dute. Baina, hedabideetan mezuak produzitzen eta banatzen dituztenen kokapen soziala identifikatzea ez da batere erraza suertatzen. Hasi beharko genuke galdetzen ea nor den igorlea, nortzuk diren mezu horiek produzitzen eta banatzen dituztenak: hedabideen jabetza duten enpresaburuak? Informazioa jasotzen, idazten eta zabaltzen duten kazetariak edo bestelako profesionalak? Hedabideen zuzendariak, erakunde horietako organigraman kokapen estrategikoak dituztela, jabeak barik, soldatapekoak izan arren? Publizitatearen presioa? Audientziaren indizeen presioa?

Hedabideen boterea honako hauek zehazten dute: gizartearen bestelako botereen artean hedabide horiek duten kokapenak, eragileen artean betetzen duten bitartekotza-funtzioak, batik bat demokrazian, eta mundu-ikuskeraren erai-kuntza eta birsorkuntza-prozesuetan izaten duten partaidetza bereziak. Hedabideak mundura ematen duen lehioa ez ezik, munduari begiratu bat ere badira.

Kazetariak munduari egiten dioten begiratu gainerakoek egiten dioten bezalakoa ala desberdina da? Profesional horiei begiratu berezi bat eragozten zaie, jakina, guztiok ditugu gure gizarte-kokapenen arabera begiratu bereziak; baina, kazetariei edo, gutxienez, horien sektore gorenari onartzen zaien kokapen pribilegiatuak *zer gertatzen den* ulertzeko gaitasun handiagoa ematen die, edo gutxienez *gertatzen ari denaren berri* izateko gaitasuna.

2. Op. cit. 225. or. Euskal Herrira etorrira honako lanak aurkitzen ditugu: Fernandez, L. (1996): "Euskal kazetarien profila", *Jakin*, 96, 51-62, eta Cantalapiedra *et al.* (2000): "La situación profesional y laboral de los periodistas vascos", *ZER*, 9, 335-355. Azken lan horrek UPV-EHUK egindako ikerketa baten berri ematen du. Ikerketa horretan aipatzen dira kazetarien zentsua eraikitzeko dauden zailtasunak eta horiekin erlazionaturik euren ikerketako kazetarien zentsutik eta inkesta egiteko laginatik kanpo gelditu zela gure ikus-entzunezko komunikazioaren arloko hedabide garrantzitsu bat, ETB.

3. Callejo, J. (2000): "Medios, Género y Poder", in M. Garcia Cortazar, M. eta M. A. García de León, *Profesionales del periodismo*, CIS, Madrid.

Gobernariak, politikariak edota epaileak diotenaren eta hedabideen mezuak irakurtzen, ikusten eta entzuten dituen gizartearen artean, mezuen bitartekotza-ekoizpen- eta banaketa-lana dago. Lan horren zatirik handiena kazetariak egiten dute.

Planteamentu batzuen abiaburua hauxe da: argitaratuak diren mezuen inguruan kazetariak erabaki-aukera zabalak dituzte. Aukera hori bitartekotza-erakundearen antolaketa barruan gorenko kokapenetan zabalagoa izanik. Horrela, gorenko kokapen horiek dituztenek argitaratzen diren mezuetan, modu kontziente ala ez kontziente batez, beren mundu-ikuskerara txertatzeko joera izango dute; haien gizarte-sektorearen mundu eta gizarte-erlazioen ikuskerara. Aldiz, beste planteamendu batzuen abiaburuan aurkitzen dugu botere gabeko kazetarien irudia. Kazetariak lan egiteko egokitutako eremuak, erakundeak edota komunikabideak boterea erantzen dituzten jardunari. Profesionalen gehiengo zabal batek eskuratu duen boterea lan egiten duten hedabideak zuzenean emana da. Kazetari-lanaren definizio bera komunikabide batean lan egiteak zehazten du, horrela komunikabide batentzat lan egiten duena kazetari da, titulazioari erreparatu barik, eta, ez hori bakarrik, zenbait kasutan jardunak berak egiten du langile kazetari, telebistako eta irratiko saioen zenbait aurkezlerekin askotan gertatu izan den bezala. Hedabideak izendatzen ditu kazetari, eta boterea ematen die kudea dezaten.

Botere handiarekin edo txikiarekin, kontua da herritar orok, kontsumitzaileak zein enpresaburuak, boto-emaileak zein politikariak onartzen dutela kazetarien erabakien eragin handia gizon eta emakume arrunten eguneroko bizitzan; erabakiak, bestalde, komunikabideen mezuei dagozkie. Hori dela eta, boterea daukateknek mimitzen dituzte, botererik ez eta izan nahi dutenek, eliteak ez direnek, baina bitartekariak behar dituztenek entzunak izateko, maitatu edo gorrotatu egiten dituzte⁴. Kazetariak ez dira gizon eta emakume arruntak, eguneroko gizonezkoek eta emakumezkoek dagoeneko ez dute ikuspunturik, komunikabideetan dauden gizabanakoak, ordea, uste izaten da ikuspuntudunak direla⁵.

Kazetarien apartekotasunak lan egiten duten gaiarekin zerikusia dauka. Behin onaturik komunikabide bateko kide izatea dela botereaz erantzen zaiena, mezuen sortze- eta banatze-prozesuan nolabait eragiteko ahalmena onartzen zaie. Mezuetan eskua sartzea haien zeregina da. Horrela, mezuen bitartekari gisa eta gizarte-eragileen arteko bitartekari gisa, komunikabideak eta haien kazetariak gure gizartearen kapital sinbolikoaren sortzaile eta birsortzaile nagusiak dira.

“Informazioaren igorketa” edo “entretanimenduaren produkzioa” baino harago, komunikabideen mezuek errepresentazioak sortzen eta birsortzen dituzte eragile eta faktore desberdinetatik, baita horien artean garatzen diren gizarte-harremanen errepresentazioak ere. Hortaz, gizon eta emakume arrunten arteko harremanenak ere bai. Horrela, komunikabideen mezuek zenbait gizabanakoren eta gizarte osoaren arteko harremanaren ezarpenean parte hartzen dute. Esaten dute nortzuk

4. Ahotsari dagokionez, azpimarratzekoa da ahots publikorik ez dutenen bozeramaile izatea kazetarien lanbidearen legitimazio-iturrietako bat dela, lanbidearen oinarri ideologikoaren elementua da.

5. Izatez, independentzia, non mundu-ikuskeraren independentzia sartzen baita, lanbidearen beste oinarri ideologiko bat da.

diren aparteko gizabanakoak eta nortzuk arruntak. Alegia, errepresentazio horietan mendekotasun-harreman bat duen mundu soziala dago.

Baina, ezin da ahantzi komunikabidean edo erakundearen sozializazio-lan bat dagoela eta sozializazio-prozesu horrek lortu nahi duela erakundearen mundu-ikuskerak eta kazetariarenak nahasi daitezela, berdinak izan daitezela. Hau da, instituzioa gizabanakoaren gainean ezartzen da, haren aurreko ohiturak, ideiak, balorazioak eta errepresentazioak deslotuz. Pixkanakako sozializazio-prozesu horrek lanbidearen mirariak ahalbidetzen ditu: komunikabide bakoitzaren lerro ideologikoak zeintzuk diren argi eta garbi identifikatzea eta, aldi berean, profesionalaren independentzia izatea balio nagusi eta negoziaezina. Beraz, independente izateko kazetariak erabat mendekoa izan behar du, hots, soilik komunikabide baten mendekoa delarik erabil dezake bere independentzia profesionala. Hedabidearekiko kazetariaren mendekotasuna lortu ahal izateko burututako lan eskerga horrek erakusten du ere ekiteko aukerarik badagoela eta, agian, garrantzitsuagoa izan daitekeena: kazetariak legitimitaterik baduela lanbidearen boterea erabili ahal izateko.

Kazetariaren botere-iturrien artean, eta oraingo honetan haren botereaz ari gara eta ez komunikabidearenaz, kazetariak berak bere buruari eransten dizkion funtzioak aurkitzen ditugu, alegia, lanbideari eransten zaion funtzioak utzitako tartea, aukera.

Eta beren buruari ematen dizkioten funtzioak haien boterea badira, *zuzentzen diren gizartearen ispilua izatea*⁶, esaterako, haien legitimazio-iturria —hartzaileen merkatu berezi hori— mendekotasun-prozesuen ardurarik gabe uzten dituen bera da, prozesu horietatik at baleude bezala: gizartearen ideia eta botere mota bat baino ez dute kudeatzen. Gizartearen zerbitzariak besterik ez dira. Ez dira gizarte horren sortzaileak.

Independentziaren ideologia edo ideologia eza lanbidearen balioen erdigunean kokatzen da. Baliorik gabe gizartearen balioen ispilua izan daiteke⁷. Ildo horretan, kazetariaren adierazpen-askatasuna legitimatzen da ez gizabanakoaren eskubide gisa, gizartearen beraren eskubide gisa bere buruari entzun ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, lanbidearen boterea erabiltzeak dituen oinarri legitimitzaileek, adierazpen-askatasunaren denfentsan bildurik, ez dute eragozten botere horren erabilera-egiturak mugatu izana. Haren funtzio soziala, lanbidearen ideia sostengatzen duena, lan egiten duen hedabidearen helburupean aurkitzen da. Adierazpen-askatasuna prentsa- eta enpresa-askatasunaren mendean gelditzen da. Kazetariaren askatasuna (eta boterea) hedabidearen askatasunarentzat arrisku gisa agertzen da, azken hori lehenengoaren muga estrukturala izanik: «Merkatu-irizpideek erabakigune maila guztiak zeharkatzen badituzte profesionalaren askatasunaren tartea oso-oso txikia izango da».

6. F. Ortegak gizartea sortu barik ordezkatu egiten dutelako autosinesmen horren modu anitz bildu ditu: Ortega, F. (1996) "El ascenso de una nueva clase", *Telos*, 47, 19. or. eta guk ere: Martín Sabarís, R.M. eta Amurrio Velez, M.(2003): "¿Para qué sirven los periodistas? percepciones de los y las profesionales de radio y televisión de la CAPV", *ZER*, 14, 14-16.

7. Testuinguru horretan "kazetariak ezin gara politikoki inplikatu" bezalako esaldiak uler ditzakegu.

Dena dela, kokapen meneratzailea argia izan arren, erakundeak kazetariengan ezartzen duen kontrola ez da gauza erraza, ez eta gardena ere. Gehiago da prentsa-enpresaren boterearen eta kazetari-lanbidearen erresistentziaren arteko etengabeko negoziazio-prozesu bat. Kontrola komunikabidearen lerroak garrantzitsutzat jotzen duenaren gainean ezartzen da (*hard news*)⁸. Auzi horietan komunikabidean sozializatuenean erabakitzen dituzte mezuen ezaugarriak.

Esan beharra dago hedabide batean bizitzen den sozializazioa ez dela hasten hedabide horretan lanean hasi ahala. Bidea pixkanaka-pixkanaka irekitzen da. Lehenik eta behin, hedabidearen arauak onartzeko premian sozializatu beharra dago. Azken hori, behin lanbidea instituzionalizatua, prestakuntza-erakundeek gauzatzen dute. Hortaz, kazetarien boterea, legitimazio-iturri zabalak izan arren, estrukturalki mugatua dago. Urria bada ere, badute haien balioak eta kokapen sozialak defendatzeko tarterik eta aukerarik, gizonezko eta emakumezko, gizarte-klase edo gutxiengo nazional bateko kide diren aldetik.

Tarte urria ala ez, kontua da kazetariei eranstean diegun eragin sozial eta politikoaren gaitasun horrek ikertzaileen arreta iratzarri duela. Arreta horrek bi ikerketa-lerro nagusi sortu ditu:

- Bata, *Lanbidearen osaketa*, alegia, zeintzuk diren komunikatzaileen ezaugarri sozialak eta kulturalak, ezaugarri horiek haien lan-jardunean izan dezaketen eragina aztertu, ezagutu eta ulertu ahal izateko.
- Bigarrena, *Kazetarien lan-jardunaren eragina gizartean*.

Guk geuk ere ikerketa honen abiaburuan bi norabide horiek aintzat hartu baditugu ere, lehen hobetsi dugu, jakin gura izan baitugu: batetik, nola dagoen osatua Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko kazetarien lanbidea eta, bestetik, zein diren kazetari horien iritziak beraien jardunaz. Hala ere, artikulua honetan ez dugu kazetari horien lan-jarduna kokaturik dagoen egituren berririk emango, ez eta jardun horren inguruko iritzien berririk ere, horrek guztiak artikulua bat baino gehiago eskatzen baitu. Horrela, lehenengo norabideari baino ez diogu ekingo eta modu labur batez, ezin baita hona ekarri lortutako informazio guztia.

2. Ikerketa-objektua zehazten: Euskadiko ikus-entzunezko kazetariak

Nortzuk eta nolakoak dira Euskal Herriko ikus-entzunezko kazetaritzaren profesionalak? Galdera horri erantzuna eman guran hasi ginen gure ikerketa-lana eta jakin-min horrek gidaturik edozein ikerketa zientifikoren abiaburuan hartu beharreko erabakiak hartzeari ekin genion. Lehenengo erabakia gure ikerketa-objektua definitzea izan zen eta hasierako definizioa honakoa duzue: *Euskal Herriko ikus-entzunezko hedabideetan informatiboetan lan egiten duten kazetarien soslai soziologikoa eta lanbidearekiko jarrerak*.

Unibertsoaren eraikuntza

Gure lehenengo pausoak unibertsoaren tamaina eta ezaugarriak zehaztera zuzendu ziren. Non daude ikus-entzunezko kazetariak? Zentsaturik al daude?

8. Callejo, J.(2000: 21).

Ikus-entzunezko komunikazio-enpresetan egon badaude. Hori dela eta, ikus-entzunezko alorreko ia 50 enpresarekin jarri ginen harremanetan; izaera publikoak, pribatukoak, estatu mailakoak, autonomikoak eta tokian tokikoak. Eta kazetariekin harremanetan jartzeko informatibo-buruengana jo genuen. Lehenengo harreman horietan gure ikerketaren berri eman ostean, euren laguntza eskatzen genien albiste-saioetako kazetariekin egon ahal izateko. Esan beharra dago, salbuespenak salbuespen, hedabide gehienetan ateak zabal-zabalik izan genituela behar izan genuen guztirako. Salbuespenaz hitz egin beharra dago ere. Nafarroako zenbaitek gure eskaerari ezetza erantzuteak gure unibertsoa mugatzera behartu gintuen eta. Horrela, hortik aurrera muga administratiboetara jo behar izan genuen eta, hortaz, gure unibertsoa honakoa izan da: *Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko hedabideetan informatiboetan lan egiten duten kazetariak*.

Iritzien eraikuntza

Esan bezala, Euskadiko ikus-entzunezko kazetaritzaren profesionalen ezaugarri sozialak eta kulturalak jakin guran genbiltzan, eta bai ezaugarri horien eragina profesional horiek lan-jardunaz adierazten zituzten iritzietan. Helburu horiek eskuratu ahal izateko erabili genituen metodoak honakoak izan dira: kuantitatiboa, konparatiboa eta kualitatiboa. Eta datuak ekoizteko teknikak lehengo biei dago-kienez: galdera-sorta, eta hirugarrenari dagokionez: elkarrizketa sakona⁹.

Galdera-sorta diseinatzeko aintzat harturiko *dimentsioak* edo *edukiak* honakoak izan dira:

- a. Soslai soziologikoa, alegia, ezaugarri soziodemografikoak, motibazioak, asmoak eta joera ideologikoak.
- b. Lanbidea eta horren rolen definizioa(k): ezaugarriak, lanbidearekiko jarrerak, deontologia eta audientziarekiko erlazioak.
- c. Lanbide-prestakuntza eta sozializazioa.

Behin datuak eskuratzeko teknika diseinaturik, hurrengo urratsa galdera-sorta betetzea zen. Hautatutako hedabideei, orotara, 62 galderako 450 galdera-sorta bidali genizkien eta horietatik 201 jaso genituen, hau da, % 45eko erantzuna izan genuen.

Aintzat harturik kazetari horien lanaren ezaugarriak pozik agertzen gara jasotako galdera-sorten kopurua dela eta. Kopuru horrek agerian uzten du profesional horien jarrera baikorra izan dela. Jarrera, bestalde, ikertzaileok bertan behatu genuen, han egon baikinena kasu gehienetan.


9. Galdera-sorta administratu ahala sakoneko elkarrizketak burutu genituen, orotara 12 sakoneko elkarrizketa egin genituen. Datuak ekoizteko teknika horren erabilerak galdera-sorten bitartez ekoiztutako iritziak **alderatzea, argitzea eta sakontzea zuen helburu**. Elkarrizketatu genituen kazetarien gehiengoa zuzendaritza-funtzioak dituztenek osatzen dute eta eurekin batera zenbait informatzaile klabe ere bai. Baina, artikulua honetan horren guztiaren berri ezin izango da eman, ezta galdera-sortak biltzen dituen datu guztien berri ere. Soilik ekarri ditugu hona lanbide-profilarekin zerkusia dutenak.

3. Ikus-entzunezko Hedabideetako Kazetarien ezaugarri soziodemografikoak

3.1. Kazetari gazteak. Emakumezkoak are gazteagoak

Gure ikerketa-objektu osatzen duten profesionalak emakumezko eta gizonezko gazteak dira: batez besteko adina 32 urtera ez da ailegaten. Beraz, hemen, munduko gainerako herrialdeetan bezala, kazetaritza gazteen lanbidea da, Weaver-ek¹⁰ dioskun bezala.

Kazetari hauen gaztetasunaz gain, gizon eta emakumeen presentzia ia parekatuaz jabetu gara ere: % 50,2 gizonezkoak dira eta % 48,3 emakumezkoak. Emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia kuantitatiboa parekoa bada ere, adina tartean dabilelarik, parekotasun horren zenbait ezaugarri interesgarri agertzen zaizkigu:




Alegia, aztertutako kazetarien kolektiboa gaztea bada ere, gazteen artean emakumeak gehiago dira. Errelitate horrekin egiten zuen topo Weaver-ek¹¹ ere Estatu Batuetako kazetarien soslaia ikertu zuelarik: emakume kopururik handiena, % 45, kazetari gazteen artean. Gure kasuan proportzio hori nabarmen handiagoa da, % 65,9. Ikus dezagun orain gaztetasuna nola dagoen banatuta herrialdeka.

Kazetarien % 69 bizkaitarra da, % 15 gipuzkoarra eta % 16 arabarra. Bistan da bizkaitarren nagusitasuna gure laginean, ezin baita ahaztu herrialde horretan dagoen hedabideen konzentrazio handia. Horrela, herrialdeari erreparatzen badiogu, gazteen kopururik handiena gipuzkoarren artean aurkitzen dugu, % 73k 31 urte baino gutxiago baititu. Bizkaiko kazetarien kasuan, 31 urte baino gutxiago dituztenek kolektiboaren ia erdia ordezkatzeko dute, % 44,6. Arabarren artean ere, bizkaitarren beste gazte aurkitzen dugu: % 43,7; herrialde horretan, ordea, kazetari kopururik handiena, % 31, 41-57 adin-taldean aurkitzen dugu, bizkaitarren % 12 diren bitartean eta % 6,6 baino ez gipuzkoarren artean.

10. Weaver, D. (1999): "Periodismo y nuevas tecnologías:Perfiles de los periodistas del siglo XXI", *C/C*, 4, 219-229.

11. Weaver, D., op.cit.: 220. or.


Adina/Herrialdeak



Gaztetasunaz ari garela beste datu interesgarri batzuk hedabideei¹² loturik agertzen zaizkigu, esaterako: batez besteko adinaren gaitetik, hau da, hain gazte ez direnak, RNE Pais Vasco (\bar{x} : 42,7), Radio Vitoria (\bar{x} : 35,5) eta COPE (\bar{x} : 33,57) komunikabideetan ari diren kazetariak dira, kasurik nabarmenena RNE Pais Vasco irratiko kazetariena izanik, non 32 urte baino gutxiago duenik ez baitago. Gazteen gunea, ordea, tokian tokiko telebista batean ari direnen artean agertzen zaigu, Canal Bizkaiako kazetarien % 10ek baino ez baitu 32 urte baino gehiago; eta 40 urte baino gehiagoko kazetaririk ez dago. Azken datu hori, alegia, kazetari horien gaztetasuna, orokor daitekeelakoan gaude tokian tokiko beste komunikabideen kasu gehienetan. Bestalde, bistan da kazetarien gaztetasunak edo heldutasunak komunikabideen sorrera eta ibilbidearekin zerikusi handia daukatela. Komunikabideen sorreraz eta ibilbideaz ari garelarik, aurreko bi mutur horien erdibidean koka genezake, agian, ETB non kazetarien adin-taldearen artean oreka handiagoa baita.


12. Zenbait analisi estatistikotarako, komunikabideen kasuan, hartu behar izan ditugu kazetarien gutxieneko kopurutik gorakoak eskaintzen zituztenak; gutxieneko kopuru hori 10 kasurena izanik.

Adina/Komunikabideak




Dena dela, ñabardurak ñabardura, kazetari gazteak dira eta, arestian esan bezala, gazteenen artean emakume gehiago dira; goazen, bada, sexu-genero banaketa ikustera herrialdeka eta hedabideka.

Sexu-generoa/Herrialdeak




Emakume kopururik handiena Gipuzkoan aurkitzen dugu. Erreparatzen badiegu hedabideen banaketari herrialdeka, ageri-agerian gelditzen da gure galdera-sortari erantzun dioten kazetari gipuzkoarren hedabideak irrati eta tokian tokiko telebistak direla, eta soilik, telebista generalista batekoak (Tele 5koak).

Hedabideak/Herrialdeak




Ildo beretik, hipotesi modura pentsa genezake emakumezko gehiago direla irrati eta tokian tokiko telebistetako kazetarien artean. Ikus dezagun, bada, datuek zer dioskuen:

Sexu-generoa/Telebistak



Telebista generalistetako sexu-genero banaketak erakusten du emakumezko eta gizonezkoen presentzia kuantitatiboa parekatzerantz doala, TVEren kasuan izan ezik. Joera bera erakusten dute tokian tokiko telebista batzuek: Arabako Tele Vitoriak, eta Bizkaiko Canal Bizkaia eta Tele Bilbao. Gipuzkoako tokian tokiko telebistetan, aldiz, emakumezkoen presentzia kuantitatiboa askoz handiagoa dela nabarmena da, eta telebista horietan behatutako joera hori ere Bizkaiko Tele 7n aurkitzen dugu. Ikus dezagun, orain sexu-genero banaketa hori irratietan.

Sexu-generoa/Telebistak




Irratien kasuan, Euskadi Irratian baino ez dugu aurkitzen emakumezkoen presentzia kuantitatibo handi hori, beste guztietan badirudi gizonezko eta emakumezkoen presentzia hori parekatzera doala bi kasutan izan ezik: Bizkaia Irratian eta Getxo Irratian. Hortaz, berriro Gipuzkoan kokaturiko irrati batean aurkitzen dugu emakumezkoen presentzia kuantitatibo esanguratsu bat.

3.2. Emakumezkoek seme-alabarik ez. Gizonezkoak ezkonduak eta seme-alabekin


Kolektiboaren banaketak, adina eta sexu-generoaren arabera, aldagai horiei loturik beste ezaugarri batzuk eskaintzen ditu. Alegia, kazetarien familia-egoerari dagozkionak. Gizonezkoen % 55 ezkondua da ala bikotearekin bizi da; berriz, egoera horretan emakumezkoen % 35 baino ez dago. Esan bezala, elkarrizketatutako kazetariak gazteak dira, eta emakumezkoak are gazteagoak; horrek azalduko luke ezkongabeen portzentajerik handiena azken horien artean aurkitzea, % 58,8, ezkondu gabeko gizonezkoak % 42,6 diren bitartean. Beste datu bitxia bananduen kategorian beha daiteke: kategoria horretan ere emakumezkoak gehiago dira, % 5,2; gizonezkoak % 2 diren bitartean.

Sexu-generoa/Egoera zibila



Aurrekoarekin loturik, honakoa ere egiaztatzen da: gehiago direla seme-alabarik ez duten emakumezkoak gizonezkoak baino, gizonezkoen erdia baino gehiagok seme-alabarik ez izan arren. Horrela, emakumezkoen % 16 baino ez da ama, gizonezkoen % 35 aita den bitartean.

Sexu-generoa/Seme-alaben kopurua



Emakumezkoen familia-egoera gizonezkoenarekin alderatuta nabarmen desberdina da. Gai horren inguruan goi-mailako emakumezko profesionaleei buruzko ikerketetan antzerako datuak ageri dira. Baina, lehenago esan bezala, kazetarien kolektibo hau gaztea da eta emakumeak are gazteagoak, hortaz, denbora pixka bat igaro beharko da egiaztatzeko emakumezko profesional hauen familia-egoera behin-behinekoa den ala ez.¹³


13. Hala ere, García de Cortazar-ek gai honi buruz ari delarik honakoa dio: «...Pero en la relación entre estado civil, maternidad y sexo sí se da una vinculación anómala. Entre las altas profesionales se dan más solteras (39,8% frente a 16,5% de los varones), menos casadas (47,3% frente a 77,1%), más separadas (11,3% frente al 5,1%) menos madres (52,4% frente al 23,6%) y con menor nº de

3.4. Ama-hizkuntza, laneko hizkuntza

Ikus-entzunezko hedabideetan euskara hutsez ari diren kazetariak zenbat diren zehaztea ez da erraza izaten, hedabide batzuek ele bietan egiten dute-eta. Horien artean Euskal Herriko hedabide nagusia, ETB alegia, edo hobeto esanda, ETB-1 euskaraz eta ETB-2 gaztelaniaz ari diren arren, langile askok ele bietan egin behar dute lan. Gure ikerketan inkestatuen % 21ek ETBn egiten du lan, eta horrek, aurki ikusiko dugun bezala, eragina izango du datu orokorrak irakurtzeko orduan.

Ikus-entzunezko kazetarien kolektiboa aztertzen hasi ginela, jakin bagenekien, gutxi direla euskara hutsez ari direnak (Goiena Telebista, Bizkaia Irratia, Euskadi Irratia edo ETBn *Bertatik Bertara* bezalako saioretan ari direnak, esaterako). Horiek horrela, ikus ditzagun euskararen inguruko zenbait datu.

Kazetarien ama-hizkuntza aztertu dugunean, honako hauek izan dira emaitzak: % 27,9 euskara, % 61,7 gaztelera, % 7,5 biak, % 1,5 bestelakoa¹⁴.





Ama-hizkuntzaz galdetzeak ez digu euskararen ezagutzaren inguruan datu mugatu bat baino eskaintzen, etxetik kanpo euskaldundu diren kazetariak ez baitaude % 28 horren barruan. Izan ere, euskararen ezagutza mailaren inguruan galdetzen zaienean, ia erdiak maila altua duela dio, laurden batek ertaina, eta % 20 baino gutxiagok maila baxua.

hijos...Y en este punto la posible interferencia de la edad tiene un papel secundario porque las divergencias son tan notables que no son explicables por una simple cuestión de años». García de Cortazar, M. eta García de León, M^a A.(2000): *Profesionales del Periodismo*, CIS, Madrid.


14. Eusko Jaurlaritzak egindako 2001eko Soziolinguistikako Inkestaren emaitzetan euskara ama-hizkuntza daukatenak Euskal Autonomia Erkidegoan % 18,8 dira, beraz, kazetari hauen artean euskara ama-hizkuntza daukatenek populazioan baino presentzia handiagoa daukate. Eusko Jaurlaritza (2003): *Euskararen Jarraipena. 2001eko Soziolinguistikako Inkestaren emaitzak*, 22. or.

Euskararen ezagutza maila



Neurri handi batean, euskararen ezagutza adinarekin ¹⁵dago erlazionatuta; horrela, maila altua daukatenak % 52 dira gazteenen artean, eta % 49, 26-31 eta 32-40 adin-taldeetan; aldiz, 41-57 urte bitartekoen artean ezagutza altua aitortzen dutenak % 24 baino ez dira. Era berean, esan liteke emakumezkoek maila altu-xeagoa dutela (% 49,5) gizonezkoek baino (% 42,6). Baina datuak gurutzatzeko orduan, ezberdintasunik deigarriena nazio-identitatearen kasuan agertzen zaigu.


Euskararen ezagutza/Nazio-identitatea



Ikus dezagun orain, hizkuntzaren erabilera lanean eta kalean euskararen ezagutza altuaren datuari erreparatuta, alegia % 46 horri:

15. Lehen aipaturako txostenaren arabera, 50 urte baino gutxiago dituztenen artean elebitasunak izandako aurrerapena ukaezina da. Op. cit., 17. or.


Euskararen erabilera lanean eta kalean



Lanean euskara erabiltzen dutenak % 38,8 dira; ezagutzaren datuarekin alderatuz 8 puntuko aldea dago; horietatik % 20,9 ari da euskara hutsean, gainerako % 17,9 ele bietan ari den bitartean.

Lanetik kanpo, gaztelania hutsaren edo euskara hutsaren erabilera jaisten den bitartean, 13 puntutan igotzen da ele bietan aritzen direnen portzentajea. Hemen ere, % 41,3 badira euskara erabiltzen dutenak, ezagutzaren datuarekin alderatuta 5 puntuko aldea egonik, honakoa esan genezake ezagutzari eta erabilerari erreparatuta: ikus-entzunezko hedabideetan lan egiten duten langileen % 41 dela euskalduna¹⁶.

Lehen aipatuenez, kazetari euskaldunen kopururik handiena ETBn aurkitzen dugu. Telebista horretan, kazetarien % 90 euskalduna da, horietatik % 44k euskaraz egiten du lan, beste horrenbeste ele bietan eta gaztelania hutsez % 11,6k. Nabarmenak dira ezberdintasunak, inkestan parte hartu zuten komunikabide guztiekin alderatuz gero.




16. Euskal Autonomia Erkidegoko populazioko elebidunen portzentajea % 40,8 da. Elebidun kategoria horren baitan Euskal elebidunak, Elebidun orekatuak, Erdal elebidunak eta Elebidun hartzaileak sartzen dira. Op. cit., 21. or.

Goiko datuei erreparatuta honakoa egiazta daiteke: ikus-entzunezkoetan lan egiten duten kazetarien artean, ia erdiak euskaldunak izan arren, laurden batera ere ez dira iristen euskara hutsez ari direnak. Gehiengoak gaztelania hutsez egiten du lan. Beraz, ikus-entzunezkoetan euskaraz jarduteko prestatutako profesionalak badira ere, ez dirudi lan-merkatuak kazetari horien ezaugarri edo ezagutza horri probetxurik ateratzen dionik. Aldiz, tokian tokiko hedabideak aparte utzita, irrati-telebista publiko nagusia da euskarazko kazetaritza bermatzen duena.


3.5. Kazetaritza ere gutxien irabazten dutenen artean emakumezko gehiago

Egun, egiten diren galdera-sortetan oso gutxitan aurkitzen dugu diru-sarreraren inguruko galderarik, hutsune horren zioa hauxe da: urteetan jasotako ez erantzunen portzentaje handiak. Guk, jakinaren gainean egon arren, erabaki genuen galdera hori egitea eta pixka bat harrিতuta gelditu ginen jasotako erantzun portzentajearekin: % 98,5. Jakina, gure ikerketa ez da kazetaritzaren eliteen gainekoa, baizik eta informatiboetako erredakzioetan lanean ari direnen gainekoa. Seguru asko oso bestelakoa izango zen erantzunen portzentajea gure ikerketa-objektua beste hori izan balitz. Erantzun horiek honako datu hauek utzi dizkigute:


Hileroko diru-sarrerak



Grafikoan ikusten den bezala, % 20,9k 600 euro baino gutxiago irabazten du, % 34,3k 600 eta 1200 euro bitartean, % 31,3k 1200 eta 1800 euro bitartean eta % 12k 1800 euro baino gehiago. Adinari errepartuz gero, honakoa ikusten dugu:



Goiko grafikoak erakusten digu gutxien irabazten dutenak gazteenak direla, eta lehenago esan bezala, gazte horien artean emakumezkoak gehiago dira, beraz, ez gaitu harritu behar gutxien irabazten dutenen artean emakume gehiago aurkitzeak.



Badirudi, beraz, emakumeak gazteagoak izateagatik gutxiago irabazten ari direla. Gizonezkoak, aldiz, gazteak bai, baina, gutxiago dira gutxien irabazten dutenen artean eta, berriz, gehiago dira gehien irabazten dutenen artean. Denbora igaro beharko da jakiteko joera horiek gaztetasunari loturik doazen joerak diren ala horien atzean beste arrazoi sakonago batzuk dauden.

4. Motibazioak eta asmoak

4.1. Kazetaritzan litzentziadunak

Gure kolektiboaren gehiengoak lanbidearekin erlazionatutako litzentziatura dauka (% 67,2k Informazio Zientziak, % 15,4k Kazetaritza, % 4k Ikus-entzunezko Komunikazioa). Soilik % 5,5ek dio beste litzentziatura bat daukala edo bat ere ez; beraz, lanbide-intrusismo delako hori gutxi. Euskal Herriko Unibertsitatean prestatutako profesionalak dira gehienbat.

Weaver-ek¹⁷, gai honi buruz ari delarik, nazioarte mailako ikerketa baten emaitzak erabiltzen ditu honakoa baieztatzeko: kazetaritzan ari direnen profesional gehienek unibertsitate-litzentzia badute ere, ez da ohikoa izaten litzentzia hori kazetaritzari buruzko programatan oinarritua izatea. Horrela, profesional horien % 30ek baino ez du kazetaritza litzentziarik. Salbuespenak ere aipatzen ditu, bi muturrekoak gainera, batetik, Britainia Handiko kasua non % 4k baino ez dauka kazetaritzan litzentziarik; eta, bestetik, Espainia (% 87), Brasil eta Txile non profesionalen erdiak baino gehiagok daukan prestakuntza berezitu hori. Datu horiek ikusita, argi dago non dauden kokaturik gure profesionalak.

4.2. Bokazioz kazetari


Aurrekoarekin loturik, antza, kazetari hauen % 56,2k dio *bokazioz* hautatu zuela kazetaritza lanbide gisa; % 29,4k dio *idaztea gogoko zutelako* eta % 12k *kazetari-bizimoduak* eraginda; horri loturik, agian beste % 5ek dio *arriskuak eta abenturazaletasunak* bultzatua eta % 8,5ek *gizarte aldaketan eragitearren*. Oso bestelakoak izan ziren 1999an Garcia de Cortazar¹⁸ ikertzaileak jaso zituen datuak gai beraren inguruan: kazetarien % 40,4k *idaztea gogoko zutelako* hautatu zuten kazetaritza lanbide gisa, % 16,6k *gizarte aldaketan eragitearren*, % 11k *kazetari-bizimoduak eraginda* eta % 10ek *bokazioz*.

4.3. Kazetaritzan asmo nagusiak: informazio berezitua ekoiztea eta erreportaria izatea, azken hori, batik bat emakumezkoena

Kazetaritza lanbidean zuten asmo nagusiaz galdetuta, honakoak izan ziren jaso genituen erantzunak: % 21,4k *informazio berezitua ekoiztea* esan zigun, % 19,9k *erreportaria izatea*, % 13,4k *informatiboa ez den saio bat zuzentzea*, % 12,9k *informazio saio bat zuzentzea*, % 12,9k *erredakzioaren ertaineko arduraduna izatea*, % 8,5ek *hedabide bat zuzentzea*, % 8k *atzerrian korrespondentsala izatea*. Erantzun horiek erlazio estua erakusten dute gorago lanbidea hautatzeko aitortutako arrazoi nagusiekin. Baina, erlazio hori aldatzen da *sexu-genero* aldagaia tartean dagoelarik:

17. Weaver, D. (1999). Op. cit, 221. or.

18. Garcia de Cortazar, M. et al. (1999): *Los profesionales de los medios de comunicación*, CIS, Madrid.




*Informazio berezitua ekoiztea eta erreportaria izatea asmo nagusitzat aitortzen dituztenen artean emakumezkoen presentzia nabarmen handiagoa da. Emakumezkoen presentzia handi hori agerian gelditzen da ere *Informatiboa ez den saio bat zuzentzea* eta *atzerrian korrespontsala izatea* asmo nagusitzat aipatzen dituztenen artean. Gizonezkoen presentzia handiagoa da, ordea, *hedabide bat zuzentzea* eta *informazio saio bat zuzentzea* erantzun dutenen artean.*

5. Joera ideologikoak

5.1. Nazio-identitatea

Kolektibo honen gehiengoak, % 61,7k, euskal nazionalismoarekin identifikatzen du bere burua. Datu horretatik gehien urruntzen den kolektiboa 41-57 urte bitartekoen artean aurkitzen dugu: euskal nazionalismoarekiko atxikimendua % 44k aitortzen baitu. Halaber, oso esanguratsua da atxikimendu hori erakusten dutenek non egiten dute lan: ETBn, Radio Euskadin eta Radio Vitorian.

Hedabideak/Euskal nazionalismoa




5.2. Ezkertiarak

Profesionalei eskatu genien ere dikotomia ideologiko klasiko baten eskalan beren burua kokatzea. Oraingo honetan, gehiengo handiago batek, % 74, 6k ezkertiarizat jo zuen bere burua. Sexu-genero aldagaiari begiratu gero, honako datuok egin dugu topo: gizonezkoen artean % 89k ezkertiarizat hartzen du bere burua eta emakumezkoen artean % 75ek. Begiratu adinari zuzenduz gero, aipatutako batez beste horren azpitik gelditzen den datua 26-31 adin-taldekoek dagokie, % 68, eta goitik gelditzen dena 32 urtetik gorakoen artean aurkitzen dugu: % 80.

5.3. Sinesmen erlijiosoak

Sinesmen erlijiosoen inguruan galdetu diegularik, eta % 53,8ren erantzuna katolikoa izan bada ere, horietatik, % 46k katoliko ez praktikanteak direla aitortzen du. Portzentaje hori emakumezko profesionalen artean nabarmen igotzen da, erdia baino gehiago baitira erantzun hori eman dutenak: % 52. Goian aipatutako erantzunen portzentaje orokor horretatik urrunen gelditzen diren profesionalak 41-57 adin-taldekoen artean aurkitzen ditugu, % 24k baino ez baitu erantzun hori hautatu. Sinesmen erlijiosorik ez dutenak zein ateoak direnak batuz gero, kazetari hauen % 33rekin egiten dugu topo. Ikus dezagun orain sinesmen erlijiosoen araberrako profesionalen banaketa zenbait hedabidetan.

Hedabideak/Sinesmen erlijiosoak




Euskal nazionalismoari atxikimendu gehien erakusten dioten kazetarien hedabideetan, hots, ETBn, Radio Euskadin eta Rado Vitorian, sinesmen erlijiosoei dagokienez aniztasun handia erakusten duten profesionalak aurkitu ditugu.

6. Elkartegintza

Askotan lanbide baten instituzionalizazioa edota profesionalizazioa lanbidea arautzen duten lan-elkarteekin loturik agertzen da ere. Hortaz, lan-elkarteetako bazkideen kopurua aztertua izaten da profesionalizazio horren adierazle gisa. Gure kazetarien kasuan, behean ikusten dugun legez lan-elkarteetako partaidetzaren portzentajea handiena bada ere, apala da (% 17,4). Beste horrenbeste esan dezakegu beste elkarteetan erakusten duten partaidetza-portzentajeaz.

Partaidetza elkarteetan



Joera horiek egiaztatzen ari diren lanbide honekiko oso zabaldua dagoen ustea: oso lanbide individualista dela.

Ondorio gisa

Honaino ikusitakoak honako argazkia utzi digu: ikus-entzunezko hedabideetan ari diren kazetariak gazteak dira, gizon eta emakume gazteak; azken horiek are gazteagoak. Profesional horien gazteen kopururik handiena gipuzkoarren artean ageri da, aldiz, kazetari helduen proportziorik handiena arabarren artean dago. Hedabideei begiratu gero, nabarmena da gaztetasunak tokian tokiko hedabideekin erakusten duen erlazio estua, horiek neurri batean ere gazteak baitira. Goian esan bezala, profesional hauen artean emakumeak are gazteagoak dira eta, berriro ere, portzentajerik handiena kazetari gipuzkoarren artean ageri da. Gogoratu beharra dago Gipuzkoako profesionalak irratikoak eta tokian tokiko telebistakoak direla, batik bat; horrela, Gipuzkoako azken horietan eta Euskadi Irratian ari diren profesionalen artean emakumezkoak askoz gehiago direla esateak ez gaitu harritu behar. Familia-egoerari dagokionez, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna nabarmena da: gizonezkoak gehiago dira ezkondu eta seme-alabak dituztenen artean; emakumezkoak, aldiz, gehiago dira ezkongabeen artean eta seme-alabarik ez dutenen artean. Hortaz, maila goreneko

lanbideen inguruko gainerako ikerketetan agertzen diren joerak ikus-entzunezko kazetari hauen artean ere aurkitzen ditugu. Kazetarien laurden batek euskara du ama-hizkuntza, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ama-hizkuntza daukatenak % 18 den bitartean. Eta elebidunen kopurua bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko populazioan dagoenarekin. Kazetari euskaldunen kopuririk handiena ETBn aurkitzen dugu, % 90. Ordainsariari erreparatuz gero, lanbide honetan ere, gutxien irabazten dutenen artean emakumezko gehiago dago, eta, alderantziz, gehiago irabazten dutenen artean gizonezko gehiago, nahiz eta ia denek lanbidearekin zerikusia duen litzentziatura bat izan, alegia, prestakuntza bera izan. Gehiengoak bokazioz hautatu zuen kazetaritza lanbide gisa, hala ere, euretako laurden batek idaztea gogoko izatea aipatzen du. Kazetaritzan asmo nagusiak informazio berezitua ekoiztea eta erreportaria izatea dira; azken hori, batez ere, emakumezkoen asmoa da. Azkenik, profesionalen gehiengo euskal nazionalismoarekin eta ideologia aurrerakoiarekin edo ezkertiarrekin identifikatzen da. Erljioari dago-kionez, berriz, kolektiboaren erdiak katolikotzat jotzen du bere burua. Hala ere, elkarteetan zein sindikatuetan erakusten duten partaidetza oso-oso apala da.

Lan honen hasieran hizpide izan ditugu igorleen ikerketa-lerroaren egoera eta garrantzia. Garrantzi hori kazetarien jardunaren langaiari loturik aurkeztu dugu: munduaren berri ematean, berriak ekoiztean eta ekoizte-prozesu horretan hartzen dituzten erabakiak gizon eta emakume arrunten eguneroko bizitzan eragin handikoak direla ere baieztatu dugu. Halaber, erabakiak hartzeko ahalmen hori, batik bat, kazetarien sektore gorenari dagokion arren, gainerako kazetariei ere ahalmen-tartea onartu diegu, lanbideari eransten dizkioten funtzioetan.

Gure ikerketan gainerako kazetari horien soslaiak eta jardunak aztertu ditugu, hedabide desberdinetako albiste-saioetako erredakzioetan lanean ari diren kazetarien zenbait ezaugarri eta kazetaritza-jardunarekiko iritziak jasoz. Ezaugarri soziodemografikoek utzitako soslaia ezagutarazi eta hurrengo pausorako bidea ireki dugu, bide horretan argituko dugulakoan, ezaugarri horiek nola lagun diezaguketen kazetaritza-jardunaz profesionalen esanak azaltzen, alegia, hobeto ulertzen.

Bibliografia

- Bezunartea, O.; Cantalapiedra, M.J. eta Coca, C. (2000): "La situación profesional y laboral de los periodistas vascos", *ZER*, 9, 335-355.
- Callejo, J. (2000): "Medios, género y poder", in M. García de Cortazar eta M.A. García de León, *Profesionales del periodismo. Hombres y mujeres en los medios de comunicación*, CIS, Madrid, 1-29.
- Eusko Jaurlaritza (2003): *Euskararen Jarraipena. 2001eko Soziolinguistikako Inkestaren emaitzak*, Kultura saila, Vitoria-Gasteiz.
- Fernandez, L. (1996): "Euskal kazetarien profila", *JAKIN*, 96, 51-62.
- García de Cortazar, M. eta García de León, M.A. (2000): *Profesionales del periodismo. Hombres y mujeres en los medios de comunicación*, CIS, Madrid.
- Martín Sabarís, R.M. (1999): *La organización informativa y los procesos de producción de la noticia. La información diaria en Euskal Telebista*, UPV-EHUko argitalpen-zerbitzua, Bilbao.

- Martín Sabarís, R.M. eta Amurrio Velez, M. (2003): "¿Para qué sirven los periodistas? Percepciones de los y las profesionales de radio y televisión de la CAPV", *ZER*, **14**, 11-27.
- eta —————, (2004): *Ikus-entzunezko kazetarien lanbide soslaia*. Euskarazko Kazetaritza argitalpen elektronikoa.
- Ortega F. (1996): "El ascenso de una nueva clase", *Telos*, **47**, 21-31.
- Weaver, D. (1999): *Periodismo y nuevas tecnologías: perfiles de los periodistas del siglo XXI*, *CIC*, **4**, 219-229.

